Gida hau tresna erabilgarria eta santurtziar guztien etxeko gastuak hobeto planifikatzeko lagungarria izatea espero dugu.

# AURKIBIDEA

## AURKEZPENA

1. BESTE MODU BATERA PENTSATZEN ETA JARDUTEN IKASTEA
2. NOLA AURREZTU EROSKETAN ETA JANARIEN PRESTAKUNTZAN
3. ETXEKO ENERGIA: ARGIA, UR BEROA, ETXETRESNEN ERABILERA ETA BEROKUNTZA
4. ZORREI, MAILEGUEI ETA BANKUEI BURUZ
5. GURPILEI BURUZ: AUTOA, METROA, TRENA, AUTOBUSA, BIZIKLETA... EDO OINEZ
6. ARROPA, ZAPATAK, ALTZARIAK ETA ETXETRESNAK EROSTEA
7. TELEFONO FINKOA, SAKELAKO TELEFONOA ETA INTERNET
8. SEME-ALABEN GASTUAK
9. ETXEBIZITZA ALOKATU ETA EROSTEARI BURUZ
10. AISIALDIAN, KULTURAN, KIROLEAN ETA BESTE GAUZA BATZUETAN AURREZTEA
11. ESKURAGARRI DAUZKAZUN ZERBITZUAK



# 1. BESTE MODU BATERA PENTSATZEN ETA JARDUTEN IKASTEA



Diotenez, gizakia azkar egokitzen da zoritxarrera. Beharbada horregatik, jadanik diru gutxiarekin bizi diren pertsona askok pentsatzeko era berezi bat garatu dute, egoera hori eramagarriagoa izan dadin. Baina nola egiten dute? Nondik abiatu gastua gehiegizkoa den egoera bat aldatzeko?

## Nola egin aurrezteko plan bat?

Hasteko, **argi izan behar ditugu zenbait helburu** (aurrerago zehazkiago hitz egingo dugu horietako bakoitzari buruz):

- Beharrezkoak ez diren gauzetan ez gastatzea
- Gure beharrezkoen erantzuteko justua gastatzea
- Hilero pixka bat aurreztea

Helburu horiek lortzeko, **gure ohituretan hainbat aldaketa egin behar ditugu:**

- Beste jarrera bat garatzea: gutxiago kontsumitu beharrena.
- Familiako kide guztien artean konpromiso batzuk ezartzea
- Jokabide batzuk aldatzea, aurreneurri gisa

Ikus ditzagun, banan-banan, zein diren aldatu behar ditugun gure ohitura horiek, helburuak lortzen lagunduko digutenak:

## A. Beste jarrera bat: kontsumitzeko beharra gutxitzea.

Egiaz, ez da erraza gutxiago gastatzea gaizki pasatu gabe. Soilki, ez da erraza kalera irtetea eta hanburgesa gozo horri edo itxuraz gogobeteago sentiaraziko gaituzten modako zapata horiei uko egitea. Eta ez da erraza azken sakelako telefonoa edo kafe espresoaren kapsula bidezko zinema izarren makina erosteko gogoari eustea. Publizitate, eskaintza eta **iragarkiz inguraturik bizi gara**, eta era guztietako produktu eta zerbitzuetan gastatzera bultzatzen gaituzte. Badirudi hanburgesa, zapatak, sakelakoa edo kafe espresoazko kapsulak... «eskubide» bat direla ia! Eta horiei uko egiteak triste, sumindurik edo barne hutsune bat sentitzen dugula utz gaitzake.

Baina dirurik ez denean, ez dago hori konponduko duen tristeziarik edo suminduririk. Familia batzuk ez dira iristen hilaren bukaerara, eta zorpetu egiten dira; beste batzuk iristen dira, baina bizikidetzaren onaren kontura, beti berberak aurreztu behar izaten dutelako. Badira, azkenik, gutxiagorekin bizitzea lortzen dutenak eta hala ere ondo sentitzen direnak; azken horiek, segur aski, onartua dute gutxiago gastatzeak ez duela zertan barne gogobetetzea gutxitu. Baina **nola baretu daiteke kontsumitzeko bulkada?** Nola onartu mugak, zerbait erosterik ez izatearen ondoriozko amorrua eta frustrazioa sentitu gabe?

**Gakoa da gure barnean gertatzen den horretan jartzea arreta.** Zerbait erosteko gogo bizia dugunean, inurridura edo barne urduritasun moduko bat sortzen da; urduritasun hori lasatu egiten da zerbait hori erostean. Hori gutxi ez balitz bezala, zenbaitetan, erostearen ondoriozko gogobetetzeak oso gutxi irauten du, bai baitakigu alferrikako edo gehiegizko gastu bat ari garela egiten. Hala ere... bulkadari men egin diogu! Berri ona hau da: **alda dezakegula bulkadaz erosteko prozesu hori.**

**Gura dugun gauzari ez eta barne urduritasunari** erreparatzen badiogu,



prozesu hori borondatez **GELDI** dezakegu. **Barne elkarrizketa bat ezartzen ohitzea** da kontua, geure baitako hizketaldi moduko bat, gastatzeko gogo bizi hori desegin eta geure buruaren kontrola indartuko duena.

**Bi eratako teknikak** daude: gorputzaren urduritasuna baretzea xede dutenak eta objektuaren desiragarritasuna gutxitzea lortu nahi dutenak.

● **Gorputzaren urduritasuna baretzeko**, era honetako esaldiak errepikatuko ditugu geure artean:

*"Lasaitu eta sakon hartuko dut arnasa"*

*"Nabari dut nola ari naizen lasaitzen"*

*"Hondartza atsegin batean pentsatuko dut... erreka baten zurrumurruan..."*

*"Erlaxatuago nagoela senti dezaket"*

● **Objektuaren gaineko desira gutxitzeko**, era honetako gauzetan pentsa dezakegu:

*"Pasa ninteke hori gabe", "Ez dut behar"*

*"Onartzen dut gura dudala, baina ez dut behar"*

*"Ongi sentitzen naiz hori erosi gabe"*

*"Hain zuzen ere, ez erosteagatik sentitzen naiz ondo"*



Geure buruari ezartzen dizkiogun jarraibide horiek **maiz errepikatu** behar ditugu, tentaldiaren aurrean bizkorrago eta eraginkorkiago irten dakizkigun. Gogora ezazu **zeure burua izan daitekeela zure aliatu onena**.

## B. Familiako kide guztien artean konpromiso batzuk ezartzea.

Ezer gutxitarako balioko du aurrezteko helburua ezartzea, familiako gainerako kideek laguntzen ez badute. Horregatik, beharrezkoa da **argiro hitz egitea eta zer gastu egin ditzakegun adostea**. Aurrezki-plan bat ez da inoren aurkako plan bat; aitzitik, familiako kide guztiek irten behar dute irabazle, eta denek lagundu behar dute prestatzen eta abian jartzen.

Horretarako, **pauso hauek jarrai** ditzakezue:



1

HILEKO **DIRU-SARRERAK** HONAKO HAUEK DIRA: \_\_\_\_\_ €

**NAHITAEZKO GASTU** FINKOAK HONAKO HAUEK DIRA:

Hipoteka edo alokairua \_\_\_\_\_ €

Argia, ura eta telefonoa \_\_\_\_\_ €

Asegurua, ordainagiriak \_\_\_\_\_ €

Beste gastu finko batzuk \_\_\_\_\_ €

**GASTU FINKOAK GUZTIRA:** \_\_\_\_\_ €

**DIRU-SARRERAK**

**GUZTIRA  
GASTU  
FINKOAK**

**=** \_\_\_\_\_ €

Bestelako beharretarako dirua

2

BESTE

1. J.

B.

2. B.

.

.

**BEHAR  
HASIERA**



## C. Jokabide batzuk aldatzea, aurreneurri gisa

Litekeena da orain Visa edo beste kreditu-txartel bat aldean eramatea. Alabaina, **txartelak etxean uztea** da har dezakezun jarrera garrantzizkoenetako bat. Dirurik gabe edo erosi beharrekoak erosteko diru justuarekin irteeta da bulkadaz ez erosteko eta eskaintza erakargarriak saihesteko jokabiderik eraginkorrenetako bat. Edonola ere, txartelak erabiltzekotan, saiatu **zordunketa-txartela** erabiltzen, momentuan kobratzen baituzu, eta ez kreditu-txartelak, kargua hurrengo hilabetean pasatzen baituzu. Saiatu, halaber, **epeka ez erosten**; edonola ere, aztertu zer

interes ordaindu beharko dituzun, eta ikusi itxaron dezakezun edo beste leku merkeago batean eros dezakezun. Bestalde, saiatu **zure etxean bertan eskaintzarik ez onartzen**, izan energia konpainietako saltzaileek eginak zein beste edozein produkturen saltzaileek eginak. Berdin dio akreditaturik etortzea edo saltzaile ofizialak izatea. Guztiz argi ez baduzu, **ez sinatu ulertzen ez duzun ezer**. Pentsatu eta hitz egin etxekoekin.

Gainera, zure jarduteko modua aldatzeko, **gauza berriren bat erosi aurretik** (beharbada ez baituzu behar), honako hau egin dezakezu:

- Hartu egin batzuk benetan beharrezkoa duzun pentsatzeko.
- Pentsatu kostatzen dena balio duen edo marka edo logotipo baten atzetik zabiltzan.
- Egizu objektuaren desabantailen zerrenda bat.
- Aurreztu txanpon batzuk egunero, aurrerago erosteko (edo baztertzeko).
- Esan egun batzuetan uzteko jadanik badaukan norbaiti.
- Bila ezazu bigarren eskuko objektuen denda edo webguneetan.
- Eskatu zure familiakoei burutik ideia hori kentzeko.
- Aloka ezazu aldi batez.
- Ahal baduzu, egizu zerorrek edo konpondu antzeko objekturen bat trastelekutik hartuta.
- Utz ezazu zerbait oparitu behar dizutenerako ideia moduan.

BEHAR BATZUETARAKO DIRUA: \_\_\_\_\_ €

JANARIA EROSTEKO BEHARREZKO DIRUA: \_\_\_\_\_ €

ADIRA **BESTE** BEHAR BATZUK?  
Zein dira?, zenbat kostatzen dira?

\_\_\_\_\_ €

\_\_\_\_\_ €

**BESTE ERRORETARAKO DIRUA** — **JANARIA ETA BESTELAKOAK** = \_\_\_\_\_ €

**GAINERAKO DIRUA**  
Aurrezteko edo ustekabekoetarako

## 2. NOLA AURREZTU EROSKETAN ETA BAZKARIAREN PRESTAKUNTZAN

### JANARIA EROSTEA

**Supermerkatuak** behar baino gehiago **gastatzeko daude diseinaturik**. Horregatik, oso baliagarria da **erosketa-zerrenda itxi bat** eramatea **eta horri lotzea**. Zerrenda **beste pertsona batzuekin** egiten badugu, hobe, hartara errazagoa izango baita zerrendan dagoena soilik erosteko konpromisoa betetzea. Erne! Prestatu behar duguna erostea baita kontua, ez armairuak eta hozkailua betetzeko erostea. Beraz, datozen egunetarako menu eta otorduetarako osagaiak soilik ipiniko ditugu zerrendan, eta ez besterik.

**Supermerkatura goserik gabe** joan behar da; horrela ez duzu gutziazirik eta behar ez dugun gauzarik bulkadaz erosiko

Ikus ditzagun **supermerkatuek zein estrategia** erabiltzen dituzten gehiago eros dezagun:

- **Premia biziko gaiak atzean egon ohi dira**, eta elkarrengandik bereizita, supermerkatu osoa ibili behar izan dezagun.
- **Garestiena begien parean egon ohi da**, eta merkeena goiko eta beheko apaletan. Horregatik, goian begiratu behar da, bai eta behean ere.
- **Kutxen inguruan ipini ohi dituzte bulkadaz erosten diren gaiak** eta txikleak, gozokiak eta halako gutziak, tentaldian eror gaitezen gure txandaren zain ilaran gauden bitartean.
- **Eskaintzako produktuak ez dira beti aldamenekoak baino hobeak**. Begiratu kiloaren prezioa.
- **Orgaren orde zaski txiki bat** har dezakezu. Horrela, behar ez dituzun gauzez betetzeko tentaldia saihestuko duzu.



**Supermerkatuen helburua gu "leialtzea"** da, hau da, haien erosketaxartela izatea eta ahal den guztia haien establezimenduan erostea. Horretarako, **deskontu txikiak, sustapen-opariak edo trukatzeko "puntuak"** egiten dizkigute. Batzuetan interesgarriak izaten dira, baina kontu izan behar dugu, litekeena baita horregatik **behar baino gastatzea edo beste denda batzuetako prezioak ez konparatzea.**

Komeni da kontuan izatea fruta **auzoko fruta-dendan edo ohiko azokan erosita % 20 aurrez daitekeela batez beste.** Bestalde, arraina **% 11** inguru

### Bakarrik bizi den jendea

Bakarrik bizi bazara eta kosta egiten bazaizu janaria prestatzea, beharbada hobea eta merkeagoa izango duzu taberna batean menu xume bat jatea.

Janari prestatua ere eros dezakegu denda espezializatuetan edo eramateko janaria saltzen duten dendetan. Santurtzin badira bakar batzuk.

### Konparatu prezioak!

Ez dago zertan dena leku berean erosi

Gogoan izan **marka zuriak** merkeagoak izaten direla

merkeago egon daiteke **arrandegian**, eta okela, ostera, **% 5** merkeago irten daiteke **harategian** erosiz gero.

**Dirua aurreztu dezakegu zenbait garbigarri etxean eginez.** Esate baterako, zorua garbitzeko, aski da ardo zuriaren ozpinez beteriko bi baso eranstea baldeko urari, eta erabilera anitzeko detergente bat egiteko, berriz, 100 ml ur eta 300 ml ardo zuriaren ozpin nahasten dira aerosol botila batean. Etsenplu horiek —askoz ere gehiago daude Interneten— amaieran adierazitako webguneetan datoz.

### Pentsatu erosten duzun bitartean

Zerrendan ez dagoen zerbait aurkitzen baduzu eta erosi gura baduzu, pentsatu benetan behar duzun.

Egin gastatua daramazunaren kontua, aurrekontutik ez irteteko.



## JANARIA PRESTATZEA

Segur aski, **hileko gastuetatik, janaritan aurrez dezakegu gehien**, plangintza on bat egiten badugu. Horregatik, otorduak antolatzerakoan, hartu kontuan ideia hauek:

- **Sasoiko fruta eta barazkiak** erabiltzea komeni da, merkeagoak baitira.
- **Produktu fresko eta naturalak** hobeto egon ohi dira prezioz aurrekozinatuak eta landuak baino.
- Kontuan hartzea merezi duen erdibideko aukera bat **jadanik prestaturiko berdura eta leken potoak** izaten dira, esate baterako, menestra, babarrun, orburu eta halakoenak; izan ere, merkeak dira eta azkar prestatzen dira.
- Bilatu **errezeta merke eta osasungarriak**. Aukera handia dago arroz, pasta, leka, barazki edo entsaladaz egindako plateretan. Halako errezeta mordoak aurkituko duzu Interneten.
- **Aprobetxatu hondarrak plater berriak egiteko**; esate baterako, oilaskoarekin kroketak egin ditzakezu, arrainburuak balio du patatak saltsa berdean egiteko, eta sobratu den ogiarekin berakatz-zopa edo purera botatzeko ogi-txigorkiak egin daitezke..
- **Ez prestatu behar den baino janari gehiago**. Edonola ere, gehiago prestatu baduzu, zerbitzatu anoak plateretan eta **izoztu sobratutakoa** beste egun baterako.
- Astegun buruzurian denbora gutxi baduzu sukaldean aritzeko, **asteburuan presta dezakezu janaria, eta ondoren izoztu, astean zehar plater prestatu ugari izateko**. Esate baterako, lehenengo eta bigarrenengo plater ugari presta ditzakezu domekan, hala nola pureak, eltzekariak, haragi-bolak, piper beteak eta kroketak, eta horrela berotu edo frijitu besterik ez duzu egin beharko etxera iristean.



### 3. ETXeko ENERGIA: ARGIA, UR BEROA, ETXETRESNEN ERABILERA ETA BEROKUNTZA

#### KONTRATUA ETA KONPAINIA MERKATURATZAILEA

Jakitea komeni den lehenengo gauza da zer eratako kontratua daukazu eta beherapenen bat lor ote dezakezue ordainagiritan. 2009ko uztaialaren 1etik ezer egin eta sinatu ez baduzu, hasiera batean "azken baliabideko tarifa" deritzona izan behar duzu. Tarifa hori aplikatzen zaie, besterik adierazi ezean, 10 kilowatt baino gutxiagoko potentzia kontratatua duten etxe guztiei (gehien-gehienak). Argindarra merkaturatzen duten enpresa batzuk, atez ate egindako kanpainenetan, bezeroak merkatu librerara igaro daitezenez saiatu dira, ustezko beherapenak eskainiz, baina gero ez dira hala suertatzen.


**Erne kontratu-mota aldatzeko egiten dizkizuten eskaintzekin** (gogoan izan: ez sinatu ulertzen ez duzun ezer), eta, zalantzarik baduzu, zoaz KUIBera (Murrieta etorbidea, 24 - Oriol jauregiaren parean - Tel: 94 461 45 51, 09:30etik 13:30era). Azken baliabideko tarifara nahi denean itzul daiteke. Bada webgune bat eskaintzak norberaren kontsumoaren arabera konparatzeko aukera ematen duena: **www.comparador.cne.es**

Bonu sozialerako eskubidea izan dezakezuela uste baduzu, informa zaitez zure argi-konpainian, hori lortzeko zein izapide egin behar dituzun jakiteko.

Bada **energia-tarifa murriztu bat, "bonu sozial" deritzona**. Tarifa horretarako eskubidea izan dezakezue zure ohiko etxebizitzan, potentzia gutxitu gabe, baldintza hauetakoren bat betetzen baduzu:

- Gutxieneko pentsioa izatea.
- Familiako kide guztiak langabezia egotea.
- Familia ugaria izatea.

Gainera, bonu sozialerako eskubidea izango duzu 3 kilowatt-eko potentzia baino txikiagoa badaukazu kontratatua, baina kontuz aukera tentagarri horrekin; izan ere, berez, 2,3 kilowatt-etan geratzen da, eta aski da tresna gutxi batzuk pizturik edukitzea fusibleek etengabe salto egiteko; kalkulatu, lehenik, zenbat energia gastatzen duzun.



## BEROKUNTZA ETA UR BEROA


**Gasa** baduzu, **lau urtez behin** egin behar duzu **instalazioaren ikuskapena**. Ikuskapenaren berri aurrez eman behar dizu, gutun bidez, enpresa banatzaileak, eta teknikari baimendu bat bidaliko dizu. **Ez iezaiozu ordaindu teknikariari**, ikuskapena ohiko fakturarekin batera ordaintzen baita. Beste kontu bat da **galdararen berrikuspena**, **2 urtez** behin egin behar baituzu. Zure aukera da gas-banatzaillearekin edo galdararen fabrikatzailearekin egitea, baina **saihestu bi mantentze-kontratu izatea**.

**Berokuntza-kontsumoan** aurrezteko, egiaztatu **beroak ez dizula leihoetatik ihes egiten**, eta ihes egiten badizu, leihoetarako zinta bereziarekin isola ditzakezu itxiturak. Etxeko tenperaturari dagokionez, **neguan aski dira 20 °C egunez eta 16 °C gauzez**. Ez da ezer gertatzen etxean jertse bat jartzeagatik ere, fresko samar badago.

**Ur-begogailuari** dagokionez, aski da **dutxatzeko 40°C-tan** jartzea. Beroago jartzen baduzu, ur beroa ur hotzarekin nahastu beharko duzu, eta beroa alferrik galduko duzu. Ura aurrezteko modu bat da **bainatu beharrean dutxatzea**, eta hobe oraindik **txorrota termostatiko** bat ipintzen baduzu orain daukazuna hondatzen zaizunean. Konketan, **itxi txorrota hortzak garbitzen dituzun bitartean edo bizarra egiten duzun bitartean**. Sukaldean, harrikoa egitean, **saiatu ontzi guztiak uretatik bukaeran pasatzen**, aldi bakar batez.

**Aireztatu 10 minutuz egunean**; hori aski da aireberritzeko, eta, hala, ez da hormetako beroa joango.

Zure **zisterna** zaharra bada eta ez baduzu aldatzeko asmorik, ur-jarioa gutxitu dezakezu, zisterna barruan urez betetako plastikozko botila bat sartuz, ondo estalita, mekanismoaren funtzionamendua ez eragozteko moduan. Aldatzea erabakitzen baduzu, jarri ura aurrezten duen modelo bat. **Kanila eta dutxetan ere jar ditzakezu** ekonomizagailuak.



## GAILU ELEKTRIKOEN ERABILERA


**Garbigailuan** aurrezteko, garbitu karga betean, ur hotz edo epelarekin, xaboi gutxirekin eta biraketa askoko zentrifugazioarekin; begiratu eta garbitu iragazkia noizean behin, matxurarik ez izateko. **Ontzi-garbigailua** erabiltzean, ondo bete, baina piezak elkarren gainean jarri gabe. Ipini programa laburrak, eta begiratu iragazkia, bai eta distirarazlearen eta gatzaren deposituak ere. **Lisaburdinari** dagokionez, berotzean kontsumitzen du gehien; beraz, saiatu lana pilatzen eta arropa asko batera lisatzen.

**Hozkailuak**, ostera, **energia asko gastatzen** du; beraz, ireki atea ahal den denbora gutxien. 10 urte baino gehiago baditu,

pentzatu aldatzeko aukeran; izan ere, berriak halako bi gastatzen du, batez ere berria «A» energia motakoa bada, dagoen eraginkorra. Izozkailuak izotza egiten badu, kendu izotza, energia pixka bat ere aurreztuko baituzu.

**Plaka edo suari** dagokionez, erabil itzazu hondoaren diametroa plaka edo sua baino handiagoa duten ontziak, eta jar iezaiezu tapa; gehien aurrezten duten ontziak **presio-eltzeak** dira; bitrozeramikazko plaka edo plaka elektrikoa baduzu, itzali bukatu aurretik, gelditzen den beroa aprobetxatzeko. Janaria berotzeko, oro har askoz ere merkeagoa da **mikrouhin-labea** plaka edo sua baino. Eta garestiena **labea** da.

Argian aurrezteko, **itzali argiak logeletatik irtetean**. Ohiko **bonbillak** erretzean, horien ordez jarri kontsumo txikikoak. Zertxobait garestiagoak dira, baino askoz ere gehiago irauten dute. Kontuan izan, orobat, **hodi fluoreszenteek gutxiago gastatzen** dutela eta bonbillek baino gehiago irauten dutela. Dena dela, fluoreszenteek energia gehiago kontsumitzen dute pizteko unean; beraz, fluoreszentea duen logela batetik irteten bazara baina berehala itzuli behar baduzu, hobe da piztuta uztea. Komeni da **gauzez telebista eta musika-tresnak edo antzekoak itzaltzea**. Urrutiko kontrolarekin soilik itzaltzen baditugu, "stand by" posizioan geratzen dira, eta energia gastatzen jarraitzen dute. Eta aprobetxatu **argi naturala** egunez; doan da.



## 4. ZORREI, MAILEGUEI ETA BANKUEI BURUZ

**Mailegu pertsonalik edo ordainketa geroraturik** baduzu, **kitatu zure zorra al bait azkarren**. Horixe duzu, segur aski, egin ditzakezun inbertsio guztietan onena.

Bankuekin eta aurrezki-kutxekin, **saihestu kreditu-txartelak, kontsumo-kredituak edo epekako ordainketak**. Saiatu eskudirutan edo zordunketa-txartelarekin ordaintzen. **Ez zaitetz zorpetu!**

**Kontuz, batez ere, maileguak ematen dituzten finantza-enpresekin**, interes izugarri handiak izaten baitituzte.

Begiratu zure bankuak edo kutxak kobratzen dizkizun **komisioak** (mantentzea, apunteak, transferentziak, txeke-sarrerak, txartelak izateagatiko urteko kuota...). **Banku edo kutxa batzuek ez dituzte halakoak kobratzen**. Bilatu, orobat, **errentagarritasun** on bat hala kontu korronteetan nola eperako gordailuetan.

Konparatu **hipotekaren hileko zenbatekoa** –baldin badaukazu–, eta **informa zaitetz beste banku eta kutxa batzuetan**, bai Internet bidez arreta ematen dutenetan ere, merkeagoak izan ohi baitira. Informazio hori erakundez aldatzeko edo gaur egungoarekin berriro negoziatzeko erabil dezakezu.

Aprobetxatu **zure nomina helbideratzeagatiko sustapenak**, baina irakurri ondo letra txikia, oso garbi izan dezazun iraunaldi edo beste baldintza batzuetarako konpromisorik hartzen ote duzun.

Eta gogoan izan bankuak eta aurrezki-kutxak enpresak direla. **Ez kontratatu haien produktuak hala iradoki dizutelako soilik**, nahiz eta ezagun zaharrak izan. Informa zaitetz beti zure kontura eta sakonki.





## 5. GURPILEI BURUZ: AUTOA, METROA, TRENA, AUTOBUSA, BIZIKLETA... EDO OINEZ

Santurtzin, metroa, trena eta autobusa izateko zortea dugu; denek dute, gainera, Bilbo Handiarekin konexioa. Garraio publikoak maiz samar hartzen badituzu, erabili **Creditrans** edo **Barik txartela**.


**Metrorako**, informa zaitez hileko abonamenduaz eta **Super 50**az, zure beharretarako onena zein den jakiteko. Metroko txartela edo Barik txartela metroko edozein bulegotan atera dezakezu, NANA eta argazki bat eramanda eta 3 € ordainduta. Txartelak bost urterako balio du. Informa zaitez ondo **treneko** eta **autobusetako** abonamendu eta deskontu berezien eskaintzei buruz.

**65 urte baino gehiago** badituzu edo maila zehaztuko **desgaitasun fisiko edo psikikoren bat** baduzu, aukerarik onena **Gizatrans** duzu; izan ere, garraio publiko guztietarako balio du (txartela metroko bulegoetan edo Bizkaiko Garraio Partzuergoko bulegoan atera dezakezu, San Mameseko intermodalean). Familia ugaria bazarete, erabili **Hirukotrans**, % 20 eta % 50 bitarteko deskontuak baititu. 26 urtetik beherakoentzat, **Gazte-joven** aukera dago, horri esker **urteko bonoa** eskura dezaketelako.

Autoa oso tresna garestia da (aseguruak, mantentzea, gasolina...). Ahal baduzu, ez erabili. Baina **lanera joateko autoa** behar baduzu, begiratu jende **gehiagorekin** joan ote

zaitezkeen, gastuak partekatzeko. Gidatzean, saihestu bat-bateko azeleratzeak, eta saiatu motorra gutxi biratuz eramaten. Eduki autoa baldintza onetan, batez ere **pneumatikoen presioa, olio** eta **iragazkiak**; autoak gehiago iraungo du horrela, eta erregai gutxiago kontsumituko du; piezaren bat behar baduzu, **autoak desegiteko lekuetan** merkeago erosi ahalko duzu.

Kontuan izan **garraio-gastua erosketak egitean**, ez dakizun gerta jogurtetan euro bat aurreztea eta gasolinan 3 gastatzea. Eta gogoan izan: ahal baduzu, **bizikletaz edo oinez joan**; hori da merkeena eta osasungarriena.



## 6. ARROPA, ZAPATAK, ALTZARIAK ETA ETXETRESNAK EROSTEA

Halako erosketak egitean, kontuan izan behar dira kalitatea, iraunkortasuna, prestazioak, bermeak eta energia-kontsumoa, etxetresnen kasuan. Prezioak ez du izan behar erabakitzeo faktore bakarra.

**GARESTIA DA KOSTATZEN DENA IRAUTEN EZ DUEN ORO.** Esate baterako, oinetako merkeak garesti irteten dira askotan, oso azkar hondatzen baitira eta ez baitira osasungarriak gure oinentzat. Hobe da **eskaintzaren batean** edo **merkealdian** kalitateko **oinetakoak** erostea. Bestalde, merkealdia aprobeitza dezakezu datorren sasoiari behar izan dezakezun **arropa** erosteko. Aukera ona da **merkealdi-azoka ere**, Santurtziko merkatariek irailan antolatzen dutena.

Ekorropa bigarren eskuko dendetan, merkeago eta elkartasunez eros ditzakezu **arropa, oinetakoak, jostailuak eta bidezko merkataritzako produktuak**. Hurbilen daudenak honako hauek dira: Ekorropa Portugalete (arropa bakarrik, Atarazanas kaleko 2. zenbakian, zuren aldapako kantoian) eta Ekorropa Barakaldo (arropa, oinetakoak, liburuak, jostailuak eta bidezko merkataritzako produktuak, Bizkaia kaleko 25. zenbakian); biak astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:30era eta 17:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:30era daude zabalik.

Abendu erdialdean, aprobeitza ezazu Calasanz ikastetxeak Gernika parkean antolatzen duen **Azoka Txiki Solidarioa: bigarren eskuko**

**arropa, liburu erabiliak, ikastetxeko ikasleek egindako produktuak edo merkatuek emandakoak...**

elkartasunezko salmenta, oso moduzko prezioetan.

Emausen (Bilbo, Sabino Arana, 42), **altzariak eta era guztietako bigarren eskuko objektuak** erosi eta sal ditzakezu. Ekorreparan (Ortuella, Orkonera z/g, eta Bilbo, Fernandez del Campo, 16), **etxetresna berreskuratuak prezio onean** aurki ditzakezu. Elekman (Loiu, Txorierrri Etorbidea, 25) eta Electrodomésticos Con Roce-n (Etxebarri, Lezama-Legizamon industrialdea, Urkiola kalea, 28), **akats txiki bat duten** edo deskatalogaturik dauden **etxetresnak** aurki ditzakezu, poltsiko guztientzat. **Cash Converter-en** (Calixto Diez kalea, 2, Bilbo), **gailu elektronikoak** (jokoak, CDak eta abar) saltzen espezializaturik daude. Decathlon-en (Megapark) "Trocathlon" izenekoa egiten dute urtean birritan, bigarren eskuko **kirol materialaren merkatu txikia**. Bestalde, badira **trukerako azoka txikiak** Interneten, hala nola [www.dirurik.gabe](http://www.dirurik.gabe) eta [www.biotrueke.org](http://www.biotrueke.org) webguneetan, eta, horrez gain, badira **era guztietako objektuak saltzeko** beste webgune batzuk ere, hala nola [www.segundamano.es](http://www.segundamano.es) eta [www.tusanuncios.com](http://www.tusanuncios.com). Komeni da jakitea establezimenduetan erositako bigarren eskuko produktuek **urtebeteko bermea dutela**.



## 7. TELEFONO FINKOA, SAKELAKO TELEFONOA ETA INTERNET



Sakelako telefonoa baduzu, saiatu **enkargu laburretarako** edo premiaren baterako erabiltzen. Sakelako telefonoak **gastu handia ekar dezake hilero**. Gastu hori mugatzeko, informa zaitez aukerarik ba ote duzun **hilean muga bat** jartzeko eta muga horretara iristean abisu bat jasotzeko. **Kontratupeko sakelako telefonoak** zertxobait merkeagoak izaten dira, baina gastua zehazki kontrolatu nahi baduzu, **aurrez ordaindutako txartel** bidezko sakelako telefonoek aukera hori ematen dizute: saldoa amaitzen denean, ez dabilta.

Telefono-konpainia ugarik dituzte ezin konta ahalako planak, deskontuak dituzten ordutegi-tarteak, doako hasierako minutuak edo tarifa bereziak dituzten dei-motak. Informa zaitez Interneten edo konpainien dendetan. Ezin dituzu

plan guztiak aztertu, baina ez duzu onartu behar ikusten duzun lehenengoa ere. Gutxienez, informa zaitez ondo zenbat ari zaren ordaintzen, eta **konparatu pixka bat beste plan eta konpainia batzuekin**.

KIUBen arabera, **telefonía-konpainiek izaten dituzte kontsumitzaileen kexa eta erreklamaziorik gehienak**; zehazki, erreklamazio guztien % 42. Kexa horiek badute oinarri bat; beraz, **kontuz ibili telefonoz edo Internet bidez egiten dizkizuten eskaintzekin**. Enpresaren eta pertsonaren identifikazioa eskatu behar da, eta ez duzu eman behar bankuko daturik, NANA, fakturarik eta bestelako datu pertsonalik, eskaintza komertziala onartuko duzula guztiz ziur ez bazaude. Adi, **telefonoz onartutako eskaintza batek idatzizko kontratu baten balio berbera baitu**.

Konpainiaren batek **telefonía finkoa, sakelako telefonoa eta internet faktura bakar batean** bateratzeko eskaintza (edo beste edozein eskaintza) egiten badizu, onartu aurretik, kontsultatu gaur egungo zure konpainiari zein diren baja emateko betekizunak; izan ere, gerta liteke oraindik bukatu ez den **iraupen-konpromiso** bat izatea, eta, orduan, penalizazio bat kobratuko dizute lehenago baja ematen baduzu.

**Erabili modu arduratsuan whatsapp-a, line-a** edo beste komunikazio-modu batzuk; izan ere, itxuraz doakoak

badira ere, aurrez alta eman behar izan duzu sakelako telefonoan Internet konexioa izateko. Ekonomikoki errentagarriak diren ikusi behar dugu.

**Kontuz tarifikazio gehigarriarekin;** izan ere, oso zerbitzu telefoniko garestiak dira; **803, 806, 807 eta 907** zenbakiekin hasi ohi dira. **Eta erne Premium SMSekin!** Izan ere, **jasotzen dituzun mezuak zuk ordainduko dituzu.** Mezu horiek hasten dira uneren batean **lehiaketa batean parte hartzea, melodia bat deskargatzea edo Internetetik pantaila-babesle bat jaistea erabakitzen duzunean eta zure sakelako telefono-zenbakia ematen duzunean.** Gure telefono-konpainiara deituz eska dezakegu **tarifikazio gehigarria duten zerbitzu horietatik eta Premium SMSetatik deskonektatzeko.** Edonola ere, gaur egun izugarritzko iruzurra izaten ari dira; beraz, zure egoerari buruzko zalantzarik baduzu, egizu kontsulta KIUBen.

**Etxez etxeko eskaintzetan, hoteletako aurkezpenetan edo establezimendutik kanpoko salmentetan** (hau da, telefonia, energia, etxebizitza edo beste edozerenak), **idatzizko kontratu** baterako eskubidea duzu; gainera, saltzaileak **Baliogabetze Agiria** eman behar dizu, hurrengo 7 egunetan kontratua ezeztatu nahi baduzu ere. Kontratua ezeztatze eskubidearen berri eman ez badizute, orduan 3 hilabeteko epea daukazu ezeztatze, konpainiari zure errefusa idatziz eta posta ziurtatu bidez bidalita. Gorde itzazu onartu duzun eskaintzaren **publizitate-agiri** guztiak; izan ere, izaera loteslea dute, eta baliagarri gerta dakizkizuke erreklamaziorik egin behar izanez gero.

**Laburbilduz:** exijitu beti idatzizko kontratua, galdetu dauzkazun zalantza guztiak, eta ez kontratatu ulertzen ez duzun ezer, gorde idatzizko publizitatea, halakorik bada, eta galdetu baja emateko prozesuaz (eta penalizatorik ba ote duen lehenago baja emateagatik), begiratu zure faktura hiler, eta aztertu aldizka beste eskaintza batzuk. Eskatu beti erreferentziako zenbaki bat zure gestiorako. Informa zaitez hobeki **www.usuariostelego.es** atarian.

**Eta azken aholkua: ez zaitez sakelako telefonoaren mendean eror.** Egia da gero eta funtzio eta denbora-pasa gehiago ekartzen dituztela, baina ez utzi gehiegi har zaitzan. **Aurreztu denbora!**



## 8. SEME-ALABEN GASTUAK

Seme-alabarik baduzu, txikitatik azal diezaiekezu zer den **aurrekontu bat**, **beharrezko gauzak eta gutuziak bereizten** irakats diezaiekezu, eta nahi duten guztia edukitzerik ez dagoela ere ikusaraz diezaiekezu. **Dirua irabaztea zenbat kostatzen den baloratzen** ikasi behar dute.

Irakaskuntza-zentroei dagokienez, informatu ikastetxean bertan **liburuak erosteko, garraiorako eta jangelarako beken** inguruan, beka horietakoren bat eskuratzeko eskubiderik baduzu ere. Bestalde, 0 eta 2 urte bitarteko haurrik baduzu, galdetu haur eskolan bertan zer zerbitzu ematen dituzten eta baliabide urriko familientzat **laguntza ofizialik** ba ote duten.

Astean sari edo **paga** bat ematen badiezu, erakuts iezaiezu administratzen, hau da, ez dezatela dena batera gasta. Erakuts iezaiezu helburuak ezartzen, eta zerbait bene-benetan nahi dutenean, anima itzazu aurreztera, erosi ahal izan dezaten.

Nerabezaroan, **ahal dela, ez eman "mailegurik"**, egiaz ez baitute horren

beharrrik eta gurasoek diru-kopuru mugagabeak dituztelako ustea indartzen ari baitzintezke. Zure semea edo alaba **lanean hasi bada**, bultza ezazu **aurrezki-kontu bat irekitzera** eta diruarekin ohitura egokiak hartzera.

Seme-alaben **sakelako telefonoa** benetako amesgaizto bihurtu da guraso askorentzat. Hileko gastua handia izateaz gain, denbora asko ematen dute jolasten edo etengabe lagunekin kontaktuan egoten, loaren eta ikasteko denboraren kontura. Horri beste arrisku batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola argazki edo bideo konprometigarriak egitea edo adiskideen arteko jazarpena pairatzea (maiz, baita **ordenagailuaren** bidez ere). Beraz, izan kontu handia hasieratik, eta **ezarri sakelako telefonoa eta ordenagailua erabiltzeko arauak eta mugak zure seme edo alabari**.



## 9. ETXEBIZITZA ALOKATU EDO EROSTEARI BURUZ

Etxebizitza eskuratzeko modurik merkeena Eusko Jaurlaritzako **Etxebideren** bidez izaten da (012 telefono-zenbakian edo Bilboko Kale Nagusiko 85. zenbakian; eta baita [www.etxebide.euskadi.net](http://www.etxebide.euskadi.net) atarian ere). **Babes ofizialeko etxebizitzak dauzkate, erosteko eta alokatzeko**; erosi nahi izanez gero, urtean 9.000 euroren diru-sarrera haztatuak izan behar dituzu gutxienez, eta alokatu nahi izanez gero, 3.000 € urtean; horrez gainera, ezin da izan etxebizitzarik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik egon behar da. Betekizun guztiak betetzen badituzu, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan eman behar duzu izena, eta etxebizitza eman arte itxaron. Etxebizitza erosteko bada, zozketa bidez egiten da, eta alokatzeko bada, baremo baten bidez. Bestalde, **Bizigune** programaren bidez, behar beste baliabiderik ez duten pertsoneri etxebizitza hutsak lortzeko aukera ematen zaie. Gainera, **ASAP** programak etxebizitza librean arrazoizko prezioan alokatzeko bitartekaritza egiten du.

**Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak** aholkularitza eman diezazuke alokairurako edo ohiko etxebizitzarako baliabide eta laguntzen inguruan. Informatzeko, Gizartekintza Arlorako dezakezu (Sabino Arana, 1; tel.: 94 420 58 27 eta 94 420 58 32).

**Alokairuko etxebizitzak** edo **logelak** aurkitzeko, etxe-agentziek nomina bat eskatu ohi dute, eta, gainera, hilabete bateko alokairuaren baliokidea

kobratzen dute; gestioa zuzenean jabearekin egiteko, begiratu egunkarietako iragarkiak edo webgune espezializatuak, hala nola [www.segundamano.es](http://www.segundamano.es) eta [www.tusanuncios.com](http://www.tusanuncios.com).

**Etxegabetze** prozesu batean murgildurik bazaude, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailak badu Gainzorpetutako Familiei Laguntza Emateko Zerbitzua. Zerbitzu horrek aholkularitza eskaintzen du Kontsumobideren bitartez (94 403 15 00), eta bitartekari lana egiten du Justizia Sailaren bidez (94 661 32 10); horrez gainera, baditu beste laguntza batzuk ere, etxegabetzea azkenik egikaritzen bada. Bestalde, baduzu herritarren plataformen laguntza ere, hala nola Stop Desahucios-ena (**Tel.: 678 163 728 eta 722 134 858**). Plataforma horiek kaltetuei laguntzen diete.



## 10. AISIALDIAN, KULTURAN, KIROLEAN ETA BESTE GAUZA BATZUETAN AURREZTEA

Aisialdiari buruz, informa zaitez Udalean zer baliabide eta zerbitzu dauden. Esate baterako, Udal Liburutegien Sarean doan irakur ditzakezu **egunkariak, aldizkariak** eta **liburuak**, eta **Internetarako** sarbidea ere doan izango duzu. Eta **materiala** eraman dezakezu **etxera**, hala nola liburuak, **komikiak, aldizkariak, CDak eta DVDak**; betekizun bakarra bazkide egitea da, eta hori doan da. Beste zerbitzu batzuk **zinema-zikloak** edo **taldean ikasteko gelen** erreserba dira; haur liburutegiek haurrentzako jarduerak antolatzen dituzte, hala nola **pintura eta ipuin-kontalariak** -bai euskaraz eta bai gaztelaniaz- eta irakurzaletasuna sustatzeko **zozketak** ere egiten dituzte. **GazteBox**-ek **kultur, kirol eta prestakuntza** jarduerak eskaintzen ditu gazteentzat, oso prezio interesgarrian, eta Gazte Txartelarekin deskontuak egiten ditu. **www.santurtzi.net** udal webgunean aurki ditzakezu.

Bestalde, Serantes Kultur Aretoa (SKA) **antzokia, zinema komertziala** eta **zinekluba** ditu, oso prezio onean. Gainera, bazkide egiten bazara, are aurrezki handiagoa lor dezakezu. Asteazkena da ikuslearen eguna, eta euro bat gutxiago kostatzen da. Dorretxean, doako **erakusketak** izaten dira, eta **Historiaren Interpretazio Zentro** bat ere badago, doakoa; horrez gainera, aretoetan etengabe aurkituko dituzu hitzaldiak, denentzat irekiak. Gainera, bertan **elkarte** askori buruzko informazioa jaso dezakezu (elkarte kulturalak, aisialdikoak, elkartasun arlokoak), eta horietan parte har dezakezu. Arte Plastikoen Udal Lantegiek (Santa Eulalia, 615 004 495) oso prezio moduzkoak dituzte, eta askotariko eskolak ematen dituzte: **olio-pintura, eskulanak, puntu-lana, ebaketa eta jantzigintza**, eta abar. Portuan,



**Santurtzi Itsasoa Interpretazio Zentroa** eta arrantza tradizionaleko **Agurtza** itsasontzia bisitatzea doakoa da Santurtziko herritarrentzat.

Kirol jarduerak, hala nola **igerilua, bainuetxea, sauna, atletismoa, squasha, tenisa, gimnasioa, xakea, arku-tiroa** eta beste asko, merkeago aterako zaizkizu kiroldegiko bazkide-txartelarekin (Tel.: 94 483 66 25). Eta **Serantes mendira igotzea** doan da.

**Museoei** dagokienez, asteazkenetan, Bilboko Arte Eder Museoa doan izaten da, eta azaroaren 11n, urteurrena duela eta, Guggenheim museoa doan izaten da.

**Ilea mozteko**, laburra utzi nahi baduzu, zerorrek egin dezakezu, salgai dauden ilea mozteko makinekin. Gainera, astearteetan, Santurtziko HLPIn, HPPPk ikastunek beren zerbitzua eskaintzen dute (HLPI – Cueto auzoa, z/g. Ordua eskatzeko: 94 461 37 00). **Dentistarengana** joan behar baduzu, Leioako Unibertsitate Eskolan ikasleek eurek artatuko zaituzte (ordua eskatzeko: 94 601 29 41).

# 11. ESKURAGARRI DAUZKAZUN ZERBITZUAK

## Udaleko Gizartekintza eta Berdintasun Arloan

(Sabino Arana, 1; ordua eskatzeko: 94 420 58 27 eta 94 420 58 32), beharrian hauetarako zer **laguntza** dauden galde dezakezu: etxebizitza edo ostatua, etxearen mantentzea eta bizigarritasuna, mantenua eta jantziak, eta abar.

Desgaitasunen bat duten pertsonak eta inoren mendekoak diren hirugarren adineko pertsonak badituzte bestelako zerbitzu batzuk ere.

**Adinekoek** doako edo kostu txikiko jarduerak dituzte (Joan Sebastian Elcano, z/g, 94 483 19 36), San Jorge (Koskojales Plaza z/g, 94 461 70 98) eta San Pedro Kabiez (Ferran doktorea, 12-16, 94 657 65 81) auzoetako zahar-etxeetan.

## Cáritas

San Joan, San Jorge eta Itsasoko Andre Maria parroketan emango dizute arreta, **oinarrizko beharrianetarako**. Caritasek Udalarekin eta inguruko beste baliabide batzuekin koordinatuta jarduten du.

## Gehiago jakiteko webguneak...

[www.ahorradores.net](http://www.ahorradores.net)  
[www.ceu.es](http://www.ceu.es)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)  
[www.economia.com](http://www.economia.com)  
[www.ideasparaahorrar.com](http://www.ideasparaahorrar.com)  
[www.intercambia.net](http://www.intercambia.net)  
[www.comoahorrardinero.com](http://www.comoahorrardinero.com)  
[www.sindinero.org](http://www.sindinero.org)

## Ogasun eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuan

(Murrieta etorbidea, 6; 94 420 58 18), udal zergak **nahierara eta errekarrik gabe** ordaintzeko moduz informa zaitezke: Ondasun Higiezin Zerga, ibilgailuen gaineko zerga, pantalanen gaineko zerga, eta abar. Badira **zerga-hobariak** familia ugariarentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat, bai eta arkitektura-oztopoak kentzeko (igogailua, bainugela...) edo zure etxebizitza hutsa Eusko Jaurlaritzaren bidez emateko ere, beste hainbatetan artean. Eta hainbat **deskontu** dituzu kiroldegian, Musika Eskolan edo Udal Euskaltegian.

## Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoan

(KIUB, Murrieta etorbidea, 25 – Oriol jauregiaren ondoan, 94 461 45 51, 09:30etik 13:30era), kontsumitzaile gisa dituzun **eskubideez** informa zaitezke, enpresen aurkako kexak eta erreklamazioak izapidetu ditzakezu, eta bitartekaritza eska dezakezu alderdien artean irtenbideak edo akordioak bilatzeko, eta –oro har– laguntza eskatzeko erosi AURRETIK informatzeko edo ONDOREN ERREKLAMATZEKO, produktua edo zerbitzua akastuna delako.

